


KANALAK


Gure kanala nagusia **aplikazioa bera** izango da. Aplikazioak komunikazio eta **foru** funtzioa betetzen du aldi berean, **chat** funtzioa, **mapa** funtzioa, **sarreraren salerosketa** funtzioa eta **dibulgazio** funtzioa besteak beste. Aplikazioak erabiltzaileari beren kokapenaren arabera gertuko festak, kontzertuak, jaialdiak eta bestelako ekitaldien **informazio eguneratua** eskuratzeko ahalmena ematen dio. Bestalde, aplikazioak sarreraren salerosketarako atala integratzen du, erabiltzaileari bilaketatik erosketara arteko ematen den prozesu osoa fase bakarrean eskeintzen, **erosotasuna** eta **unean bertan** izatea eskeintzen du.

Bestalde, **kanal digitalak** daude, aplikazioaren hedapena sustatzeko. Bereiziki sare sozialak (**Instagram**, **TikTok**, **X** eta antzekoak) dira. Kanal hauen bidez ekitaldi **nabarmenen** eta ekitaldi **privatuen berri** ematen da, **promozioak** zabaltzen dira, aplikazioaren **berrikuntzak** azaltzen dira, artistekin edo antolatzaileekin egindako **lankidetzak** komunikatzen dira eta festetan gertatutakoa igotzeko aukera ematen du. Gure erabiltzaile-profila sare sozialetan aktiboa denez eta informazioa azkar kontsumitzen duenez, kanal hauek ezinbestekoak dira erabiltzaile berriak erakartzeko eta daudenekin harremana mantentzeko.



Kanal instituzionalak eta profesionalak erabiltzen ditugu ere, hala nola **udalekin**, **ekitaldien antolatzaileekin**, **festai-lokalekin** eta **sustatzaile kulturekin** (adibidez; influentzerrak) egindako lankidetzak. Kanal horien bidez **informazio fidagarria** eta **eguneratua** jasotzen dugu, zuzenean aplikazioan txertatzen dena. Gainera, bazkide hauek zeharkako kanal gisa ere jarduten dute, aplikazioa beren webguneetan, sare sozialetan edo komunikazio ofizialetan gomendatuz eta ondorioz gure aplikazioaren ospea hedatzen.

Aplikazioan txertatutako **erabiltzaileen arteko komunikazio-kanala**, hau da, chat-a, beste kanal garrantzitsu bat da. Sistema honek erabiltzaileei ekitaldietan zehar **elkarrekin komunikatzeko** aukera ematen die, baita estaldura eskasa dagoenean ere. Horrek erabiltzaile-esperientzia eta komunikazioa hobetzen du eta pertsona berriak ezagutzeko aukera ezkeintzen du.



Azkenik, **ordainketa- eta transakzio-kanalak** ere funtsezkoak dira, **Stripe** edo **PayPal** bezalako plataforma **seguru** eta **ezagunen** bidez. Kanal horiei esker, erabiltzaileek sarrerak modu **fidagarrian erosi** eta **saldu** ditzakete, **iruzurrak saihestuz**, gaur egungo merkatuan dagoen arazo nagusietako bat baita.

Laburbilduz, gure enpresaren **kanalek teknologia, komunikazio digitala** eta **aliantza estrategikoak** biltzen dituzte, erabiltzaileak aplikazioa **ezagutu**, **informazioa jaso**, beste **erabiltzaileekin elkarreragin** eta **transakzio seguruak** egin ahal izan ditzan. Kanal horien integrazioari esker, **esperientzia osoa** eta **erosoa** eskaintzen da, merkatuaren beharrei eta enpresaren balio-proposamenari egokitzen.